



Ikasmina DoKS:

Gipuzkoako bizitza guztian zeharreko
ikasketari buruzko dokumentuak

Gogobetetzea, abantailak eta desabantailak tele-ikaskuntzan

82. dokumentua

2021eko azaroa



AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	3
1.1. Aurkezpena	3
2. Tele-ikaskuntzako jarduerak	4
2.1. Tele-ikasi duten pertsonak	4
2.2. Tele-ikaskuntzaren bidez landutako jarduerak	5
2.3. Erabilitako tele-ikaskuntzako modalitateak.....	7
3. Gogobetetze-maila, abantailak eta desabantailak	8
3.1. Tele-ikastearen esperientziaren balorazioa	8
3.2. Tele-ikastearen abantailak eta desabantailak	9
3.3. Tele-ikaskuntza oztopoa izan da ikasteko?	13
4. Ondorioak	14
4.1. Ondorioak: gakoak eta gogoeta	14

1. Aurkezpena

1.1. Aurkezpena

Dokumentu honen helburua ikaskuntzarekin lotuta eta, modu zehatzagoan esanda, ikaskuntza birtualeko modalitatearekin lotuta jasotako emaitzen panela¹ aurkeztea da. Tele-ikaskuntzako (ikaskuntza birtuala edo urrunekoa) jardueren errealitatea lantzeko, hiru informazio-bloke hartu dira kontuan:

- Proposatutako ikaskuntza-modalitateekin (presentziala bakarrik, birtuala bakarrik eta bi modalitateetako jardueren konbinazioa) lotuta pertsonen aurreko ibilbidea eta haien azkenaldiko esperientzia ezagutzea.
- Ikaskuntza modalitate birtualean egiteko haien ingurunean eskuragarri dauden baldintzak eta pertsonen gaitasunak ezagutzea.
- Egindako ikaskuntza birtuala eta lortutako gogobetetze-maila baloratzea, baita ikaskuntza birtualarekin lotutako ikasteko asmoak eta aurreikuspenak ere.

Lortutako emaitzak pertsonen karakterizazioaren arabera bereizi dira (adina, generoa, ikasketa maila eta/edo profil profesionala), batez ere.

Emaitzen panel honek Gipuzkoako helduek ikaskuntza birtualarekin lotutako jardueretan izandako eta gaur egun duten esperientzia erakusten du denbora errealean. Gainera, Covid-19aren pandemiak ezarritako murrizketak gainditu ostean epe ertainera begira tresna honek eskaintzen dituen aukerak jasotzen ditu. Azkenik, aipatu beharrekoa da tele-ikaskuntzako jardueretan, izandako gogobetetze-mailan eta ikaskuntza-modalitate horri esleitzen zaizkion abantaila eta desabantailetan zentratzen direla dokumentu honetan jasotako emaitzak.

¹ 2021eko otsailean egindako kontsulta.

2. Tele-ikaskuntzako jarduerak

2.1. Tele-ikasi duten pertsonak


Helduen ikaskuntzari eustea ahalbidetu du tele-ikaskuntzak

2020. eta 2021. urteek pertsonen ohiko bizimodua aldatu dute, eta, ondorioz, ikaskuntzaren alderdi soziala arriskuan egon da. Hala, ikaskuntzari eusteko, ikaskuntza-modalitate birtualetarako trantsizioa egin behar izan da, neurri handi batean.

Gipuzkoako pertsona helduen % 38k etengabeko ikaskuntzan parte hartu dute azken hamabi hilabeteetan. Baina, nola ikasi dute? Atxikitako grafikoa ikus daitekeen moduan, hiru pertsonatik bik tele-ikasi egin dute: batzuek modalitate birtuala baino ez dute erabili (% 35,5ek) eta beste batzuek bi modalitateak (presentziala eta birtuala) konbinatu dituzte (% 33,9k). Gauzak horrela, Gipuzkoako biztanleria helduaren % 26,4k tele-ikasi duela esan daiteke.

1. grafikoa Ikasten eta tele-ikasten duten pertsona helduak

25 eta 74 urte arteko pertsonak



Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

2.2. Tele-ikaskuntzaren bidez landutako jarduerak

Era guztietako ikaskuntza-jarduerak egitea ahalbidetu du formatu birtualak

Egindako tele-ikaskuntzako hamar jardueratik lau (% 39,8) ikastaro laburrak izan dira (egun erdikoak edo egun batekoak). Aipatzekoa da formakuntza honen pisua esanguratsua izan ohi dela ere etengabeko ikaskuntzan. Bestetik, antzeko proportzioan (% 38,4) aipatu dute ikastaro luzeekin (hainbat aste edo hilabetetakoak) lotutako tele-ikaskuntza. Gainerako jarduerak hainbat saioko prestakuntza-paketeak dira (% 25,6), eta, gainera, lehen aurrez aurrekoak ziren jardueren hamarren bat birtuala da dagoeneko (% 12,8).

Azkenik, emakumeek eta gizonak egindako jardueren artean alde txiki batzuk daude. Ikastaro luzeak pisu handiagoa dute emakumeen artean (% 42,6; aldiz, gizonen kasuan, % 34,0) eta, aitzitik, ikastaro laburren presentzia erlatiboa handiagoa da gizonen artean (% 47,6; eta emakumeen kasuan, % 32,4).

1. taula Parte hartu duten tele-ikaskuntzako* jarduerak

tele-ikasi duten 25 eta 74 urte arteko pertsonak

	Guztira	Gizona	Emakumea
Ikastaro laburrak; saiokak (egun erdia, egun bat)	39,8	47,6	32,4
Ikastaro luzeak (hainbat aste, hilabete)	38,4	34,0	42,6
Hainbat saioko ikastaroak (hainbat egun)	25,6	24,3	26,9
Ohiko ikastaroak (Covidaren aurretik presentzialak ziren, eta orain birtualak dira)	12,8	11,7	13,9
Guztira	100,0	100,0	100,0

*Birtuala eta bi modalitateak (birtuala eta aurrez aurrekoa)

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Adina, ikasketa maila eta/edo lanarekiko lotura, erabakigarriak tele-ikasteko

Tele-ikasten duten pertsonen profila erakusten du atxikitako taulak, informazioa hiru kolektibo desberdinen arabera bereiztuz: Gipuzkoako pertsona helduak, etengabeko ikaskuntza-jardueretan parte hartzen duten helduak eta, azkenik, jarduera horiek formatu birtualen baten bidez egin dituzten pertsonak. Emaitzek honakoa erakusten dute:

- Hiru kolektiboen artean ez dago generoaren araberako alderik.
- Baina, adinean aurrera egin ahala, orduan eta txikiagoa da ikasten duten pertsonen ehunekoa, eta are txikiagoa tele-ikasten dutenena: biztanleria osoaren % 37,5 dira 55 eta 74 urte arteko pertsonak, baina adin-tarte horretakoak % 21,7 dira ikasten dutenen artean, eta % 14,2 tele-ikasten dutenen artean.
- Badirudi ikasketa-maila faktore erabakigarria dela; izan ere, hirugarren mailako ikasketak dituen kolektiboaren pisua gorakorra da heldu guztien kolektibotik hasi eta tele-ikasten dutenen kolektibora arte (% 44,5etik % 68,7ra).
- Azkenik, ikaskuntzaren eta lan-jardueraren arteko lotura garrantzitsua nabarmendu behar da.

Halaber, hainbat azterlanek eta instituziok baieztatzen dutenez, orokorrean, ikasketa-maila baxua duten pertsonak gutxiago parte hartzen dute ikaskuntza-jardueretan haien bizitzan zehar, ikasketa-maila faktore erabakigarria izanik. Baina, gainera, emaitzek erakusten dutenez, ikaskuntza birtualerako behar diren konpetentzia digitaletan gabeziak izateak are gehiago handitu dezake ikaskuntzaren arloko arrakala hori.

2. taula Tele-ikasten duten pertsonen ezaugarriak

25 eta 74 urte arteko pertsonak

	Guztira	Ikasten duten pertsonak	Tele-ikasten dutenak
Emakumea	50,0	50,3	50,8
Gizona	50,0	49,7	49,2
44 urtera artekoak	41,3	57,9	63,0
45-54 urte artean	21,3	20,4	22,8
55-74 urte artean	37,5	21,7	14,2
Lehen mailakoak	21,4	10,5	7,3
Bigarren mailakoak	34,1	28,9	24,0
Hirugarren mailakoak	44,5	60,5	68,7
Aktiboa	73,0	85,9	91,9
Ez aktiboa	27,0	14,1	8,1

*Birtuala eta bi modalitateak (birtuala eta aurrez aurrekoa)

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia


2.3. Erabilitako tele-ikaskuntzako modalitateak

Tele-ikasteko erabilitako modalitate teknikoan zentratzen da atal hau, hiru aukerarekin lotuta: urruneko konexioaren bidez (streaming), webgune eta plataformen bidez (deskarga) eta bi soluzioak konbinatuz. Eskuratutako emaitzak laburbiltzen ditu atxikitako taulak eta, ikus daitekeen moduan, bi modalitateak konbinatzen dituen aukera gailentzen da (% 48,8). Webgune eta plataformetarako sarbidea da hurrengoa (% 34,1) eta, azkenik, neurri txikiagoan, urruneko konexioa (% 17,1) aurkitzen da. Printzipioz, ez dago alderik generoaren arabera.

Dena den, ikaskuntza-modalitate horien banaketa ezberdina da ikasketa-mailaren arabera. Zenbat eta altuagoa izan pertsonaren ikasketa-maila, orduan eta handiagoa da urruneko konexio-sistemaren (streaming) presentzia.

2. grafikoa Tele-ikasteko moduak. Guztira, generoa eta ikasketa-maila

25 eta 74 urte arteko pertsonak



Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia



3. Gogobetetze-maila, abantailak eta desabantailak


3.1. Tele-ikastearen esperientziaren balorazioa

Pertsonak 7/10eko balorazioa ematen diote tele-ikastearen esperientziari

Atxikitako taulak erakusten duen moduan, pertsonak nahiko pozik daude egindako ikaskuntza birtualarekin (guztiz birtuala edo konbinatua). Hala, batez beste, 10 puntutik 7 ematen dizkiote modalitate horri, eta ez dago generoaren araberako alderik. Halaber, kontuan hartu diren gainerako ezaugarriei dagokienez ere (adina, ikasketa-maila eta lanarekiko lotura), eskuratutako balorazioaren aldeak ez dira oso esanguratsuak. Dena den, aipatu beharrekoa da gogobetetze-maila "zertxobait baxuagoa" dela 45 urtez azpikoen artean, ikasketa-maila altua dutenen artean edo lan-merkatuarekin harremanik ez dutenen artean.

3. grafikoa Gogobetetze-maila egindako tele-ikaskuntza jarduerekin

25 eta 74 urte arteko pertsonak



Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

3.2. Tele-ikastearen abantailak eta desabantailak

Malgutasuna eta mugitu beharrik eza dira tele-ikaskuntzaren bi abantaila nagusiak

Tele-ikasi duten pertsona helduek abantailari emandako balorazioaren (garrantzirik ez izatetik oso garrantzitsua izatera) emaitzak agertzen dira taula hurrengo taulan. Argi eta garbi:

- Tele-ikaskuntzako prozesuen bi abantaila nagusiak honakoak dira: prestakuntza-jarduerara sartzeko eta/edo jarduera hori egiteko malgutasuna (% 62,6rentzat nahiko garrantzitsua eta % 10,0entzat oso garrantzitsua) eta mugitu beharrik ez izatea, denbora eta desplazamenduak aurreztuz (% 71,1 eta % 12,8).
- Neurri txikiagoan, bi pertsonatik batek aipatu ditu hauek: ikaskuntza-eskaintza hauen bidez aditu gehiagorengana iritsi daitekeela (% 45,5 eta % 3,8), eta prozesua alde batera utziz gero, diskrezio handiagoa (% 49,8 eta % 4,7).

3. taula Tele-ikastearen abantailak (garrantzi maila, %)

tele-ikasi duten 25 eta 74 urte arteko pertsonak

Irabazten da...	Batere ez	Gutxi	Nahiko	Dezente	Asko
Malgutasuna (nahi denean egiten da)	8,5	4,7	14,2	62,6	10,0
Mugikortasuna (denbora eta desplazamenduak aurrezten dira)	4,3	4,3	7,6	71,1	12,8
Adituengana iritea (ezagutza handiagoa edo doituagoa)	10,0	11,8	28,9	45,5	3,8
Alde batera uzteko aukera (interesatzen ez bazait, itzali egiten dut)	21,8	9,5	14,2	49,8	4,7

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Atxikitako tauletan emaitza horiek ageri dira, tele-ikasten duten pertsona helduen ezaugarrien arabera. Aurkezpena errazteko, 10eko oinarria duen indize batera eraman dira erantzunak.

Hala, ikus daitekeen moduan, ia ez dago alderik generoaren, adinaren, ikasketa-mailaren edo pertsonen lan-merkatuan duten egoeraren arabera. Kasu guztietan, jarduera egiteko malgutasuna eta mugikortasunarekin lotutako gaiak dira bi abantaila nagusiak. Kontuan hartutako kolektibo guztiek hamar puntuik zazpi puntu baino gehiago eman dizkiete bi abantaila horiei.

4. taula Tele-ikastearen abantailak (garrantzi maila, 10eko oinarria). Generoa eta adina

tele-ikasi duten 25 eta 74 urte arteko pertsonak

Irabazten da...	Generoa		Adin-taldeak		
	Emakume	Gizona	44 urte arte	45-54 urte	55-74 urte
Malgutasuna (nahi denean egiten da)	7,1	7,3	7,3	6,8	7,5
Mugikortasuna (denbora eta desplazamenduak aurrezten dira)	7,7	7,6	7,7	7,7	7,3
Adituengana iristea (ezagutza handiagoa edo doituagoa)	6,4	6,4	6,4	6,4	6,7
Alde batera uzteko aukera (interesatzen ez bazait, itzali egiten dut)	6,0	6,3	5,9	6,5	6,3

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

5. taula Tele-ikastearen abantailak (garrantzi maila, 10eko oinarria). Lan-merkatuko egoera edo ikasketa-maila

tele-ikasi duten 25 eta 74 urte arteko pertsonak

Irabazten da...	Lan-merkatua		Lortutako ikasketa-maila		
	Aktiboa	Ez aktiboa	Lehen maila	Bigarren maila	Hirugar. maila
Malgutasuna (nahi denean egiten da)	7,1	7,3	7,3	6,8	7,5
Mugikortasuna (denbora eta desplazamenduak aurrezten dira)	7,7	7,6	7,7	7,7	7,3
Adituengana iristea (ezagutza handiagoa edo doituagoa)	6,4	6,4	6,4	6,4	6,7
Alde batera uzteko aukera (interesatzen ez bazait, itzali egiten dut)	6,0	6,3	5,9	6,5	6,3

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Pertsonen arteko harremana galtzea da desabantaila nagusia

Tele-ikasi duten pertsona helduek desabantailari emandako balorazioaren (garrantzirik ez izatetik oso garrantzitsua izatera) emaitzak ageri dira taula honetan. Argi eta garbi:

- Teleikaskuntza-prozesuen bi desabantaila nagusiek pertsonekin dute zerikusia, eta tele-ikasi duten 2 pertsonatik batek, gutxienez, desabantaila horiek nahiko edo oso garrantzitsuak direla adierazi dute: pertsonetik harremana galtzen da, bai prestatzailearekiko (% 53,6 eta % 2,8), bai parte-hartzaileen artekoa (% 50,7 eta % 3,8).
- Eskariaren eta parte-hartzaileen arabera edukiak ez egokitzea da hirugarren desabantaila (% 42,2 eta % 3,3). Emaitza hori lotuta egon daiteke aipatu dugun elkarrekintza-faltarekin.

6. taula Tele-ikastearen desabantailak (garrantzi maila, %)

tele-ikasi duten 25 eta 74 urte arteko pertsonak

Galtzen da...	Batere ez	Gutxi	Nahiko	Dezente	Asko
Prestatzailearekiko harremana	19,4	12,3	11,8	53,6	2,8
Pertsonen eskariaren (galderak) arabera edukiak egokitzea	20,4	9,0	25,1	42,2	3,3
Gainerako parte-hartzaileekiko harremana (prestakuntza-ekintzen aurretik, bitartean eta ondoren)	20,4	11,8	13,3	50,7	3,8

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Atxikitako tauletan emaitza horiek ageri dira, tele-ikasten duten pertsona helduen ezaugarrien arabera. Halaber, desabantailen balorazioa ere 10eko oinarria duen indize batera pasatu da.

Hala, orokorrean, desabantailen balorazioa 6 punturen inguruan kokatzen dela ikus daiteke, eta balorazioa (apur bat) altuagoa dela pertsonen arteko elkarrekintzarekin lotutako gaitan. Aldeak ñabardura hutsak direla esan liteke, baina honakoak aipa daitezke:

- Proposatutako hiru desabantailen balorazioa apur bat altuagoa da gizonen artean, emakumeen artean baino.
- Adin-tartearen arabera, 45-54 urte arteko taldeak ematen dio garrantzi handiena prestatzailearekiko harremana galtzeari, eta 45 urtetik beherako pertsonak uste dute gutxien edukiak ez direla egokitzen edo ez daudela parte-hartzaileei doitu.
- Garrantzi handiagoa ematen diete desabantaila hauei guztiei lan-merkatuarekin harremana duten pertsonak (10etik 6 puntu baino gehiago hiru desabantaileri), aktibo ez dauden pertsonak baino (10etik 6 puntu baino gutxiago hiru desabantaileri).
- Eta, azkenik, zenbat eta altuagoa izan ikasketa-maila, orduan eta baxuagoa da desabantaila hauei ematen dieten garrantzia.

7. taula Tele-ikastearen desabantailak (garrantzi maila, 10eko oinarria). Generoa eta adina

tele-ikasi duten 25 eta 74 urte arteko pertsonak

Galtzen da...	Generoa		Adin-taldeak		
	Emakume	Gizona	44 urte arte	45-54 urte	55-74 urte
Prestatzailearekiko harremana	6,1	6,2	6,0	6,7	6,1
Pertsonen eskariaren (galderak) arabera edukiak egokitzea	5,8	6,2	5,8	6,3	6,2
Gainerako parte-hartzaileekiko harremana (prestakuntza-ekintzen aurretik, bitartean eta ondoren)	6,0	6,2	6,2	6,0	5,9

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

8. taula Tele-ikastearen desabantailak (garrantzi maila, 10eko oinarria). Lan-merkatuko egoera edo ikasketa-maila

tele-ikasi duten 25 eta 74 urte arteko pertsonak

Galtzen da...	Lan-merkatua		Lortutako ikasketa-maila		
	Aktiboa	Ez aktiboa	Lehen maila	Bigarren maila	Hirugar. maila
Prestatzailearekiko harremana	6,2	5,8	6,3	6,2	6,1
Pertsonen eskariaren (galderak) arabera edukiak egokitzea	6,0	5,8	6,7	6,1	5,9
Gainerako parte-hartzaileekiko harremana (prestakuntza-ekintzen aurretik, bitartean eta ondoren)	6,2	5,4	6,5	6,7	5,9

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Laburbilduz:

- Abantaila gisa proposatutako lau gaiei garrantzi handiagoa ematen diete desabantailekin lotutako hiru gaiei baino.
- Funtsean, tele-ikaskuntzak “abantaila gehiago ditu desabantailak baino”. Iritzia nahiko hedatua da, kolektibo batzuetan ñabardurak izan arren. Izan ere, tele-ikasteko gaitasunaren-baldintzen arabera (errazagoa edo zailagoa izatea) eta pertsonak tele-ikasteko duen motibazioaren arabera (prestakuntza-eskaintzari gehiago edo gutxiago eskatzea).

3.3. Tele-ikaskuntza oztopoa izan da ikasteko?

Tele-ikasi beharra ez da oztopoa izan ikasteko

2021ean, Gipuzkoako pertsona helduen % 38k adierazi dute kontsultaren aurreko hamabi hilabeteetan ikaskuntza iraunkorreko jarduerak egin dituztela: hortaz, pertsona helduen % 62k ez dute halako ikaskuntza-jarduerarik egin. Baina, zergatik ez dute ikasi? Eta, are gehiago, modalitate birtualen bidez egin behar izatea (tele-ikaskuntza) oztopo bat izan da ikasteko?

Atxikitako taulak jasotzen du eskuratutako erantzuna: ikaskuntza iraunkorreko jarduerak egin ez dituzten hamar pertsonatik zortzik (% 84,1) jarduera horiek ez egiteko izandako arrazoiak ez du zerikusirik parte hartuko zuketzen jarduera pandemiaren ondorioz bertan behera geratu izanarekin (% 15,3), eta "tele-ikasi ezin zutelako" jarduerak egin ezin izan dituztenen kopurua oso txikia da (% 0,6). Emaitza bera izan da emakumeen eta gizonen artean.

9. taula Ikaskuntza-jardueretan ez parte hartu izanaren arrazoiak

tele-ikasi duten 25 eta 74 urte arteko pertsonak

	Guztira	Emakumea	Gizona
Jarduerak bertan behera geratu ziren	15,3	17,4	13,3
Ezin zuen tele-ikasi (baldintzarik ez)	0,6	0,4	0,8
Ez ikasteko beste arrazoi batzuk	84,1	82,2	85,9

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

4. Ondorioak

4.1. Ondorioak: gakoak eta gogoeta

Gipuzkoako pertsona helduek egindako ikasketa birtualaren balorazioa, asebetetze maila eta ikaskuntza-modalitate honi esleitzen dizkioten abantailak eta desabantailak ezagutzea da dokumentu honen helburua. Lortutako emaitzei dagokienez, honako hauek nabarmen daitezke:

- Tele-ikastearen esperientziaren balorazio positiboa: tele-ikasi duten pertsona helduek 10 puntutik 7 eman dizkiote tele-ikastearen esperientziari. Hortaz, nahikoa gustura agertu dira egindako ikaskuntza birtualarekin.
- Tele-ikastearen abantaila nagusiak: ordutegien malgutasuna (nahi eta/edo ahal denean egiten da) eta mugitu beharrik ez izatea, ondorioz, denbora eta desplazamenduak aurreztuz.
- Tele-ikastearen desabantaila nagusiak: prestatzailearekiko harremana eta parte-hartzaileen arteko harremana galtzea. Dena den, aipatu beharrekoa da tele-ikaskuntzak "abantaila gehiago dituela desabantailak baino". Izan ere, abantaileri balorazio altuagoa eman diete desabantailei baino.
- Eta, orokorrean, tele-ikasi beharra ez da oztopoa izan 2020an ikaskuntza-jardueretan parte hartzeko, urtea pandemia kontrolatzeko ezarritako murrizketek baldintzatu arren.

Hala, aipatu beharrekoa da 2021ean Gipuzkoako pertsona helduen ikaskuntzari eustea ahalbidetu duela tele-ikaskuntzak. Ikaskuntza-jardueretan parte hartu duten hiru pertsonatik bik aukeratu dute modalitate hori. Gauzak horrela, Gipuzkoako pertsona helduen % 26,4k tele-ikasi duela esan daiteke azken urtean.



Izenburua: Gogobetetzea, abantailak eta desabantailak tele-ikaskuntzan
82. dokumentua, 2021eko azaroa

Koordinazio eta gainbegiraketa: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune
Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Egilea: IKEI, research & consultancy S.A.

Landa-lana: Datakey, S.A.

